



## ‘Astebururako eskaintza’, Tolosaldea ezagutarazteko

**TURISMOA** ▶ Atzo aurkeztu zuten ekimena Tolosan, eta igandera arte Fitur-en egingo dute, «eskualdeko turismoa suspertzeko»

**XEDEA** ▶ «Turistak eta bisitariak eskaera txikiko hilabeteetan gurera erakarri» nahi ditu Tolosaldea Tour garapen agentziak ▶ 2

### IBARRA ▶



I. TERRADILLOS

**Leabururako errepidea bi hilabetez itxi egingo dute**

Apaiz-Errekako ubidea egokitze lanak egiten ari dira ▶ 6

### TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

**Berria Pilota Txapelketan aurrera**

Aurrera Leitzak eta Aurrera-Saiaz-ek jarraituko dute ▶ 5



**Ihoteei agur esan diete leitzarrek, datorrenei begira**

**LEITZA** ▶ Amaitu dira. Atzo esan zieten agur leitzarrek 2006ko Ihoteei. Baina azken egunerako ere festarako gogoia gorde zuten ume, gazte zein helduek. Eguneko ekitaldietan, umeak izan ziren protagonista: antzerkia, makilaia tailerra, kalejira, txokolatada... Denetik izan zuten, ikusteko eta parte hartzeko. Bestalde, atzoko-

an ere eskera joanez hasi zuen eguna atxoatutako talde batek, txistulariak lagun zituela, oraingoan Erasote auzora. Eta iluntzean bertan hasi eta gauean berriz ere, Gau-bela taldea aritu zen Karrapen. Nekea etxean utzi eta nabaria zen gazte eta helduen artean gauerako hitzorduatarako gogoia. J. ASTIBIA ▶ 7

## TURISMOA ▶

NOELIA LATABURU

Tolosaldeko Tour-eko ordezkariak gaur abiatuko dira, *Astebururako eskaintza Tolosaldean* ekimena besapean dutela, Fitur azokara, Madrilén ingandea bitartean turismoaren sektoreko profesionalen nazioarteko lehen azokara, hain zuzen ere. Bertan «eskualdeko turismoa suspertzeko» ahalegina egingo dute. Atzo burutu zuten aipatutako ekimenaren aurkezpen ekitaldia, Tolosako Oria Hotelean. Bertan izan ziren Tolosaldea Garatzeneko ordezkariak, Tolosaldeko nekazaritza turismoaren elkarteak Maria Luisa Marin, Tolosako Udaleko Garapen ekonomiko, Turismo eta Enplegu zinegotzi Josemi Gomez Elozegi eta eskualdeko ostalaritza eta turismo sektoreko beste hainbat ordezkari. Guztiek ere bat egin zuten «turismoa oso dinamikoa» dela esaterakoan eta «bere sustapena guztion lana» dela baieztatzean.

*Astebururako eskaintza* berria aurkeztuko dute Fiturren, beraz, «ahalegin itzelaren ondorioa» dena eta Tolosaldeko turismoaren sektoreak duen «antolamendu ona islatzen» duena. *Eskaintza Tolosaldeko Turismo Plan Estrategikoan* landutako proposamenetako bat dela azaldu zuen Jokin Biddarratz Tolosako alkateak, «turistak eta bisitariak eskaera txikiko hilabeteetan, behe denboraldian, erakartzeko helburuarekin egina». Ekimena ekainera arte egongo da indarrean, eta asteburua Tolosaldean igarotzeko aukera eskaintzen du. 47,5 eurotik 77,5 eurora bitarteko prezioekin, 2 gau nekazaritza turismoan edo hotelean, bi egunetako gosariak eta larubateko afaria (hurbileko jatetxe batean) hartzen ditu bere baitan. Bederatzi proposamen egiten ditu eskaintzak guztira, Aduna, Alkiza, Asteasu, Bedaio, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Tolosa artean aurkeztzeko. Proposamen hauek, halaber, era guztietakoak dira: etnografikoak, kulturalak, gastronomikoak, mendi txangoak,

# Gure eskualdea Fitur azokan ezagutzeko aukera, 'Astebururako eskaintzarekin'

Tolosaldeko Tour-en eskutik, «turistak eta bisitariak eskaera txikiko hilabeteetan gurera erakartzeko» helburua du ekimenak; igandera arte izango da, Madrilén



Atzo goizean aurkeztu zuten *Astebururako eskaintza Tolosaldean* ekimena; gaur, berriz, Fitur azokan egingo dute, igandera arte. NOELIA LATABURU

ibilaldiak eta azokak. «Hau guztia beharrezkoa da denon artean jendea gure eskualdera erakartzeko», adierazi zuen Gomez Elozegi zinegotziak. *Eskaintza* hau lortzeko hiru bide izango ditu bisitariak: batetik, Internet; bestetik, telefonoz; eta, azkenik, Tolosaldeko Tour-eko bulegoan. «Internet bide garrantzitsua da eta ezin bestekoa da ondo egokitzea».

Sustapen hau Tolosaldeko Turismoaren Plan Estrategikoan aurreikusitako proposamenen barnean txertatzen da. «Turismo eskaintza goi denboraldian izan ez ezik, gainerako urte sasoietan ere sustatzea» da helburuetako bat, hau da, eskaria txikiagoa den hilabeteetan turistak eta bisitariak era-

karri nahi dituzte. Hau aintzat harturik, inguruko lurraldeetako herritarrei zuzendutako eskaintza da, bizkaitarrei bereziki, «gero eta gehiago baitira gure proposamenei erantzuten dieten lurralde horretako herritarrek», aurreko urteetako datuen azterketak erakusten duenez. 2005ean, gipuzkoarren eta kataluniarren atzetik, bizkaitarrak izan ziren gure eskualdera gehien hurbildu zirenak. Bestalde, aurreko urteetan ikusitakoaren arabera, turismo proposamenek gero eta harrera hobea hartzen du gipuzkoarren artean. Ondorioz, Tolosaldeko Tour-eko jakitera eman dutenez, «gure lurraldean ere eskaintza zabaltzeko eta indartzeko asmoa» dute.

## Tolosa, Donejakue Bidean

Turismoa bultzatzeko eta, nola ez, turistak erakartzeko, beste puntu garrantzitsua aipatu zuten atzoko aurkezpenean, Donejakue Bidea Tolosatik igarotzen dela, hain zuzen ere. Alor honetan, «urte hau ezinhobea izango da».

Batetik, aurreko amaitutako Donejakue Bidea Tolosaldean igarotzen den ibilbidean seinaleak jartzeko zergina. Horretarako, Tolosako Udalak, Donejakue Bidearen Adiskideekin eta Tolosaldeko Tour-ekin batera, ibilbideak egokitu ditu, hainbat sustapen ekintza antolatu ditu —erromesaren festa, adibidez— eta, datorren udaberritik aurrera, bestelako eki-

men batzuk ere atonduko ditu. Bestalde, Tolosak bere 750. urteurrena ospatuko duela eta, festa programa berezi bat antolatzen ari dira, «gisa guztietako jendeak parte hartu eta goza dezan».

Gainera, aurtengoan, Tolosaldeak hainbat azoka eta areto erakustaldietan hartuko du parte: Tolosako Vacances aretoan, Bordeleko (Frantzia) Tourisme aretoan, Navarturren, Sevaturren, Parisko turismoaren munduko aretoan, Valentziako TCVn, Bartzelonako STI-Cean, Bilboko Expovacacionesen, Madrilgo Expoturaren, Zaragozako (Espainia) Azoka Nagusian, Gijoneko (Espainia) Turicomen eta Oloten, besteak beste.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
**50.000**  
etxetara

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

## ARETO FUTBOLA ▶

# Kanpoan otso eta etxean, aldiz... uso

4 eta 5 galdu zuen Laskorainek

**ERREDAKZIOA**

Joan den larunbatean horitxoek Lo+Bederatzi arabarraren bisita jaso zuten, sailkapeneko hirugarren postuan den talde gogorrena, eta ikastolako mutilek 4 eta 5 galdu zuten hirugarren postu horretara hurbiltzeko zituzten itxaropenak zapuztuz. Lehen itzulia amaitu denean Laskorainek etxeko partiduetan 3 garaipen, 2 berdinketa eta 3 porrot pilatu ditu, jokoan ipinitako puntuen erdiak eskuratzuz soilik.

Neurketa orokorrean orekatua suertatu zen, borrokatua oso; baina, hori bai, «dizdira handiegirik gabea». Lomas-ekoek talde trinkoa osatzen dute, araudiaren mugan defendatzen duena eta bizpahiru jokalar oso tekniko dituen.

Partida bikain hasi zen horitxoentzat, Saldias kapitainak egin baitzuen estreinako gola. Minutuak aurrera joan ahala, ordea, arabarrak nagusitu ziren jokoan eta markagailuari buelta eman zioten, 1 eta 2. Jarraian, gainera, norgehiagokaren momentu erabakiorra iritsi

zen: aldageletara joateko 30 segundo falta zirela hirugarrena egin zuten arabarrek, eta azken segunduan laugarrena, biak kontraerasoan. Hortxe joan ziren horitxoaren ilusioak.

Horitxoek bigarren zati ona jokatu zuten, 1 eta 4ko zamari «adimentsu eta amorru» erantzunez. Saldiasen eta Yustosoren golei esker, gainera, 3 eta 4 hurbiltzea ere erdietsi zuten, baina Lomas-ekoak lasaitasunaren gola egiten asmatu zuten. 4 eta 5eko beranduegi, azken unean, etorriko zen penaltiz, berriz ere Saldias izan zela golegile.

Goraipatu, nola ez, kapitainaren *hat-trick*-a. Saldiasek dagoeneko 20 gol sinatu ditu aurtun, «bere karrera futbolistikoak oraindik ere osasuntsu dirauela frogatuz». Larunbateko beste protagonista, aldiz, Ezkiaga atezain gaztea izan zen, Domentxeren lesioagatik, eta minutu batzuz bada ere, bere debuta egin baitzuen Nazional Mailan.

Datorren neurketa Usabalen izango da, larunbatean, GSI Bilbo handiaren aurka.

## SASKIBALOA ▶

## Asko borrokatutako garaipena Aralarrentzat

EHU/UPV Araba bisitatu zuten Tolosakoek, eta 53 eta 66ko emaitza lortu zuten

**ERREDAKZIOA**

Ezinbestekoa zen garaipena lortu zuten Aralarrek larunbatean, Gasteizen, bertako EHU/UPV Araba taldea gailendu baitzuten 53 eta 66ko emaitzarekin. Honi esker, puntuen tarteak ere alde dute, joanekoan 12 puntuz galdu baitzuten etxean. Garaipen merezitua izan da; izan ere, azken hiru partidetak porroten ostean, zailtza askorekin joan ziren tolosarrak Gasteizera. Egia da aurkariak ere azken bi partidak galduak zituela, baina etxean jokatzeko zuten eta lehen itzulian Tolosara garaipea lortuak ziren 62 eta 74ko markagailuarekin.

Aurrekari hauekin kontzentrazio handiarekin jokatu beharra zegoen garaipena etxera ekartzeko. Kike, Jon eta Iñigo bajak ziren eta, beste behingoz, Mikel Ibañezek antolatzaile eta eskolta postuak tartekatuko behar izan zituen.

Partida ez zen behar bezala hasi, hala eta guztiz ere. Gasteiztarrek ohikoa duten erritmo azkarra ezarri zuten eta, horri esker, 6-0 eta 11-5 aurreiratu ziren markagailuan. Beranduago, ordea, 11-14 aurreiratu ziren tolosarrak eta lehen

laurdenaren amaierara 16 eta 16ko berdinketarekin iritsi ziren.

Bigarren eta hirugarren laurdenak erabakigarriak suertatu ziren partida nondik nora joango zen ikusteko. Tolosarrek altuera handiagoko baliatu zuten aldeak zabaltzeko, eta piboten arteko jokoa erabakigarria bihurtu zen. Defentsa ere asko zorrotzu zuten, eta laurden hauetan 12 eta 10 puntu soilik jaso zituzten. Laurden hauetako esker garaipea ziurtatuko zuen aldean lortu zuten hirugarrenaren amaieran (38-51).

Beste atal bat ere zaindu beharra zegoen, ordea: basket *average*-a. Lehen itzulian Usabalen jokatu zen partida 62-74ko emaitzarekin amaitu zen, eta sailkapenean pare-parean dauden taldeak direla kontutan harturik, Liga amaieran garrantzitsua izan daiteke. Gasteiztarrek ere horren jakitun ziren eta aldeak murriztu zituzten azken laurdenaren hasieran (46-55). Jimmy-ren mutilak, ordea, ez zeuden aukera hori alferrik galtzeko prest, eta hortzak estutuz 13 puntuko alde lortu zuten partida amaieran. Garaipen garrantzitsua, beraz.

## HEZKUNTZA ▶

## Matrikula irekia Helduen Heziketa Iraunkorrean

Otsailaren 3a bitarte dago izena emateko aukera, 15:00etatik 18:00etara

**ERREDAKZIOA**

Helduen Heziketa Iraunkorrek bigarren lauhilekorako matrikula ireki du, otsailaren 3a arte, Tolosa edo Villabonako egoitzetan, 15:00etatik 18:00etara. Eskolak ematen dituen aukeren artean daude DBH graduatua lortzeko, idazten eta irakurtzen ikasteko, matematikan sakontzeko, unibertsitaterako sarrera lortzeko 25 urtetik gorakoentzat, etorkinek gaztelaniaz ikasteko, helduentako Lehen Hezikuntza, frantsesa, Artearen Historiari buruzko ikastaroa, hitzaldiak eta kultur irteerak, besteak beste.

**TELEFONOAK ▶**
**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

 ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
 ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

 ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

 ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

 ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

 ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

 ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

 ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

 ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

 ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

 ▶ **Orendain.** Medikua: 655595

 ▶ **Orexa.** Medikua: 682228

 ▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

 ▶ **DYA:** 672536

 ▶ **Gurutze Gorria:** 674888

 ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

 ▶ **Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## ARETO FUTBOLA ▶

## Berdinketa erdietsi du Hegoalde, «partida ikusgarri batean»

Larrea eta Salvador entrenatzaileek agur esan diote taldeari; lehen itzulia amaitu da

**ERREDAKZIOA**

Lehen itzuliko azken partidaren emaitza pil-pilean ziren Usabal kiroldegian. Batetik, Hegoaldearen garaipena ezinbestekoa zen azken postuetatik aldentzeko eta, bestetik, bi entrenatzaileek agur esaten zioten taldeari, lau hilabeteren ostean. Honen guztiaren emaitza «partida ikusgarria» izan zen. Horrela, Hegoaldeko neskek berdinketa garrantzitsua erdietsi zuten, Elcheren aurka

bina berdinduz. Bi taldeak nor baino nor aritu ziren neurketa osoan zehar eta markagailuak ere hori islatu zuten: Hegoalde lortu zuen lehen gola; berdinketa, ondoren, Elcherentzat, bai eta markagailuan aurretik jartzea lortu ere. Azkenik, berdinketa eskuratu zuten tolosarrak.

Mikel Larrea eta Ruben Salvador entrenatzaileek, bestalde, jardunaldiko berria eman zuten, zuzendaritzarekin batera adostutakoaren arabera, tal-



Ruben Salvador entrenatzaileak agur esan dio Hegoalderi. HITZA

dea utzi egingo dute. Azken partida zuten, bada, bilbotarrak.

Gora begiratu behar du orain Hegoalde; izan ere, lehen itzulia igaro den honetan, balantzea ez da oso baikorra. 13. da talde tolosarra sailka-

pen orokorrean eta lau partida baino ez ditu irabazi; bi berdindu egin ditu eta bederatzi galdu ditu —horietatik zazpi kanpoan izan dira—. Etxeko balantzea «hobexoagoa» da, bi bakarrik galdu baititu eta lau irabazi.

## VILLABONA ▶

Oinkariren  
zozketa Fausti  
Gimenezentzat

Villabonako Oinkari dantza taldearen aldeko zozketa-egutegien irabazlea jakin berri da. Fausti Gimenez zizurkildarrari egokitu zaio saria. 1966 zenbakia izan da saritua, eta hamabost lagunentzat bazkari edo afari eder bat irabazi du Asteasuko Sarasola sagardotegian. Oinkari dantza taldeak zorionik berroenak eman dizkio irabazleari.

## IRURA ▶

45 lagunek  
eman dute  
odola

Arrakastatsua izan zen herenegun arratsaldean Iruran egindako odol-ateratzea, 45 lagunek erantzun baitzioten deialdiari. Urtero bi aldiz ateratzen dute odola herrian. Aurtengo bigarrena uztailaren 19an izango da. Gipuzkoako Odol-emaileen Elkarteko Irurako ordezkariak esker-erak eman nahi izan dizkie odola eman duten herritar guzti-guztiei.



Herenegun arratsaldean odola eman zuten hainbat herritarrek. HITZA

## ZIZURKIL ▶

Herriko mapa  
eta toponimia  
aurkeztuko dute

Gaur arratsaldean Zizurkilgo mapa eta toponimia lanaren aurkezpena egingo dute, Atxulondo kultur etxean. 19:00etan izango da hitzordua. Egitasmo honen zuzendaria Imanol Goikoetxea izan da, eta hainbat herritarren laguntza izan du datu bilketa burutzerakoan. Publikazio horretan azaltzen den toponimia Euskaltzaindiak onestitakoa da.

## ASTEASU ▶ XI. MENDI ASTEA

# Kiroldegiko rokodromoaren inaugurazio ofiziala

XI. Mendi Astearen baitan, kiroldegiko rokodromoan Aitzondoko I. Eskalada Topaketa burutu zuten igandean

IMANOL GARCIA

Asteasuko rokodromoaren inaugurazio ofiziala egin zuten igandean, XI. Mendi Astearen baitan. Jende ugari bildu zen, 150 inguru, Aitor Uson eskalatzaile ibartarraren hitzaldi-erakustaldia entzun eta ikustera, eta ondoren Aitzondoko I. Eskalada Topaketa parte hartzera. «Gustura» gelditu ziren antolatzaileak, Isabel Dumall kiroldegiko arduradunak azaldu duenez.

Aitor Usonen eskaladaren historiari buruzko errepasoa egin zuen lehenik. «Garai batean gaillurrak ziren helmuga, eta eskalatzea eskatzen zuten mendietan, edozein medio erabiltzen ziren gaillurrera igotzeko: iltzeak, metalezko eskaile-

rak...», azaldu zuen ibartarrak. Gerora sortu da kirol eskalada, hau da, «gailur bat lortzea baino zailtasuna bilatzen duena eskalatzerakoan. Zailtasun horrek eskatzen du segurtasun neurriak hartzea». Segurtasunari buruzko azalpenak eman ondoren, Uson rokodromotik pare bat aldiz jauzi zen, egungo materialen segurtasuna erakusteko.

Ondoren, eskalatzaile ibartarraren laguntzaz, 40 bat lagunak probatu zuten rokodromoa, bereziki haurrek. Katu hankak eta guzti izan zituzten parte-hartzaileak. Bukaeran oroigarri bat jaso zuten, mosketoi bat giltzatak moduan erabiltzeko.

Inaugurazio ofiziala igandean egin bazuten ere, aurretik

erabili zitekeen rokodromoa, eta arrakasta izaten ari da, egunero norbait eskalatzen aritzen delako, Dumallek azaldu duenez. Bost bide ditu rokodromoak eta kiroldegian materiala alokatzen da, «diru kopuru sinboliko batengatik». Asteasun afizioa badago ere, batez ere kanpotik joaten dira egun rokodromoan eskalatzerara.

Bestalde, Pirinioetako aste-bururako izena eman nahi duenak oraindik garaiz dabil. Otsailaren 11 eta 12rako antolatuko dute irteera. Asteasuarrek doan izango dute afaria, gosaria eta lo egitea Piedrafita de Jacako aterpean (Huesca, Espainia). Izen-ematea otsailaren 3a arte egin daiteke, liburutegira joz.



Batez ere haurrek probatu zuten rokodromoa. HITZA



Eskaladan lehen pausoak emateko aukera izan zuten herritarrek. HITZA

## iragarki laburrak ▶



**Anoeta.** 120 m<sup>2</sup>-ko duplex ebebizitza. Estreinatzeko.

Garajearekin.

**Berrobi.** 40 m<sup>2</sup>-ko apartamentua.

**Donostia.** 70 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza

Portu-Ene aldean.

**Irura.** Laskibar aldean, 2 logelako ebebizitza garajearekin.

**Lizartza.** Berritu beharreko 80 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza.

**Tolosa.** Zumalakarrekin, ebebizitza polita guztiz hornitua.

**Tolosa.** Aldiri pasealekuan, 105 m<sup>2</sup>-

ko ebebizitza guztiz hornitua, lorategia, garajea eta gimnasioarekin.

**Baserriak.** Elosuan, Alkizan eta Albizturren.

**Lokalak.** Berdura plazan, Ibai-Ondon, Errementarin, Pablo Gorosabelen...

**Alokairuan.** Ebebizitzak alokairuan. Lan kontratua izatea ezinbestekoa.

Bermeak.

**Pabilioiak.** Pabilioiak salgai eta alokairuan zenbait herritan.



PILOTA ▶

# Berria Pilota Txapelketan biak aurrera

Aurrera Leitza eta Aurrera-Saiaz pilota eskolek jokatzeko jarraituko dute

NEREA URBIZU

Asteburu honetan hainbat partida jokatu dituzte eskualdeko pilota eskolek. Emaizta onak lortu direla esan daiteke: Uda-berriko Txapelketa ez da txarra izan, eta Euskadiko Kluben Artekoan denetik egon da. Baina, hori bai, denetan azpimarragarriena, honakoa: Aurrera Leitza eta Aurrera Saiaz eskualdeko bi pilota eskolek Berria Txapelketan aurrera egin dutela.

Aurrera-Saiaz pilota eskolak hiru ligatan hartu du parte asteburu honetan: Uda-berri Txapelketan, kadeteetan, bat galdu eta bestea irabazi egin dute. Senior mailan ere bat galdu eta bestea irabaztea lortu zuten, azken hau Beotibarren, eta senior 2. eta 3. mailan galdu egin zuten kanpoan.

Euskadiko Kluben Txapelketan, jubenilen mailan, bi partidak irabazi zituzten, oso emaitza onekin: 22-14 eta 5-22, hain zuzen ere. Ioseba Senperenak galdu egin zuen, baina oso partida borrokatua izan zen, 21 tanto egin baitzituen. 22 urte azpikoen beste partida, binakakoa, galdu egin zuten; eta seniorrekoek erraz irabazi zuten. Ezin berdina esan elite mailako bikoteaz, galdu egin baitzuen, 7 tanto soilik lortu baitzuen Arkupe eskolaren kontra.

Berria txapelketa oso ondo joan zen Aurrera-Saiaz eskolarentzat: hiru mailatako jokalariek bi partida irabazi eta bes-

tea 21 tantorekin galdu egin zuten, Oizpe eskola arerio zutela. Orotara, hortaz, 65 tanto lortu zituzten, lor daitezkeen 66 tantoetatik. Hurrengo partida Huarte-Iruñearen kontra jokatuko dute.

Leitzako Aurrera taldeak ere partidak jokatu zituen asteburuan. Berria Txapelketan emaitza ezinhobeak lortu zituen, hiru partidetatik bi irabazi ostean. Senior mailakoa galdu egin zuten, 9 tanto lortuz. Hurrengo arerioa Lemoako pilota eskola izanen dute, otsailaren 19an.

Ezin berdina esan, ordea, Euskadiko Txapelketaz: 22 urte azpikoen mailan Patxi Beteluk galdu egin zuen 16 tanto eginaz. Jubenilen mailan ere ez zen emaitza ona lortu, galdu egin baitzuten, 22-14 emaitzarekin.

Zazpi-Iturri Amezketa pilotari eskolako hiru bikoteek jokatu zuten Uda-berriko Txapelketan: kadeteek eta jubenilek irabazi egin zuten, etxean, areio zuten bikoteak 17 tantotan utziz; eta senior mailakoek galdu egin zuten, Zumarragan.

Euskadiko Txapelketan binakako hiru partida irabazi zituzten, nagusi mailako bat galduta Ortuellaren kontra. Eskuz banakako partidetan, kadete mailan, Ortuellaren kontra galdu egin zuen: kontrakoak gogorak ditu gazte honek. Nagusietan banakakoan garaipen garbia lortu zuen.



Zazpi-Iturriko pilotari hauek Uda-berriko Txapelketan jokatu zuten. N.U.

ALEGIA ▶ BERTSOLARITZA

## Giro ezinhobeak Intxurre elkartearen bertsolariekin

Joan den larunbatean Zazpi astoren gainean bertso eskolak lehenengo bertso afaria antolatu zuen. Oso ondo joan zen, «ezinhobeto», antolatzaileen ustez. Jende aldetik, esaterako, ezin zen gehiago eskatu, lepo baitzegoen elkarteak —50 lagun inguru elkartu zen—. Afaria ere izugarri goxoa, txerrikumea gustura asko jan baitzuten, besteen artean. Hantxe aritu ziren bertsotan Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre, gai librearekin hasita, eta gero afaltzen aritu zirenen gaien gainean. Ia hiru orduz aritu ziren kantuan, une askotan oso maila altua erakutsiz.



Talde polita elkartu zen Alegiako Intxurre elkartearen larunbateko bertso afarian. HITZA

ALEGIA ▶ ADINEKOAK

## Jubilatuaren egoitzan kuotak ordaintzeko

Urteko kuotak ordaintzeko epea zabaldu dute jubilatuaren egoitzan, otsailaren 3ra arte, 11:00etatik 12:00etara, astelehenetik ostiralera bitarte. Oparia jaso nahi izanez gero, kuota ordaindu egin behar dela gogoratu dute. Bestalde, eta urteroko ohiturari jarraituz, mus, eskoba eta puntu txapelketak antolatu dituzte. Izena emateko epea hilaren 31n amaituko da, egoitzan bertan.

ALTZO ▶ KULTURA

## Liburutegiko karneta egiteko aukera

Altzoko liburutegia Euskadiko Liburutegi sarean dago jada; beraz, sarean dauden beste edozein liburutegietako erabiltzaile izateko aukera ematen du; baina beste liburutegietatik liburuak atera ahal izateko liburutegiko karneta behar da. Karnetak bideratzen hasi dira dagoeneko. Hala ere, urte osoan zehar izango da liburutegiko txartela egiteko aukera.

ALEGIA ▶

## Memoria tailerra martxan jarriko dute otsailan

Alegiako Udalak Memoria tailerra antolatu du Kultur Etxean. 15 ordukoa izango da; otsailaren 7an hasi eta maitzaren 30ean bukatuko da. Izen-ematea Alegiako Kultur Etxean dago zabalik hilaren 31a arte. Ikastaroa asteartetan emango dute, 11:00etatik 12:00etara. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero 943 65 46 98 telefonora dei daiteke edo Kultur Etxera joan.

BIDEGOIAN ▶ AGENDA 21

## Bigarren Herri Batzarra egingo dute

Larunbatean, 16:00etan, Bidegoianen, Tokiko Agenda 21 prozesuaren baitan bigarren Herri Batzarra egingo dute, udaletxean. Uztailaren 19an zuten herriko diagnostikoa lantzeko lehenengo Herri Batzarra. Orduz geroztik, eta herritarren ekarpenak abiapuntutzat hartuta, herriko ekintza planaren lehen zirriborroak definitu dituzte.

ALTZO ▶ IKASTAROA

## Yoga ikastarorako izen-ematea irekita

Yoga ikastaroa otsailetik maiatzera arte luzatzeko asmotan dauka Altzon, beti ere 6 laguneko taldea osatzen bada. Iñaki Iraolak datozen hilabeteetarako ondorengo ordutegiak proposatu ditu: goizez, edozein egunetan, 10:00etatik 11:30era; eta arratsalde, asteazkenetan, 19:30etik 21:00etara. Udaletxean eman behar da izena, aukeratu nahi den ordutegia apuntatuz.

AMEZKETA ▶

## Euskara Elkarteak ekintzak martxan jartzeko prest

Amezketa Euskara Elkar- teak beste bilera baterako deialdia egin du, hilaren 27rako. Oraingoan 18:30ean izanen da, balio anitzeko gelan. Kantu afariren bat egiteko asmoa agertu dute, beste- en artean, eta ekintza deigarri gehiago egiteko ideia eta proposamen gehiago entzuteko prest daude. Beti bezala, bilerak irekiak dira. Beraz, euskalzale guztiei egin diete deia etziraiko.

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Xinaurriak

Kaixo, guztioi!

Ezertan hasi aitzin jaso eza-zue nire agurrik sutsuena eta sentikorrena euskal errepre-sialiatu politikoon senide eta lagunok.

Egun zailak dira hauek, itxa-ropen sentipen bat izatetik, euskal jendartea etsipen, amo-rru eta, zergatik ez erran, go-rroto sentipenean murgiltzen da bat-batean. Horrexegatik doazkizue idatzizko hitz xume hauek, nolabait zuen adore eta kemenen altxa eta itxaropen ate hori zabalik mantendu deza-

zuen, beti ere pazientzia eta zuhurtzia osoz.

Hagitzetan erratan da abian jarri nahi dugun egoera be-rriak gorabeherak izan ditzakeela eta izango dituela. Hauek ez dira komunikabideetan tar-tea betetzeko, esaldiak borobil-tzeko erabiltzen diren hitz hu-tsak baizik eta errealtate gordinean oinarrituriko haus-narketak. Dagoeneko agertu dira, lehen ere aski baziren, agertoki berri honetan oztopo berriak, oraingoan BECen eki-taldiaren aitzakipean. Baina honek guztiak badu bere arra-zoia, Euskal Herria aitzinera

doan neurrian, estatu zapal-tzaileek, eta oraingo honetan Espainia (izanen dugu beste batean Frantziari buruz zori-tzarrez mintzatzeko arrazoiak) urduri jartzen ari da, eta zehaz-ki bere osotasuna mende eta urte luze hauetan bortxaz ber-matu duten indar ilun zein age-rikoek; indar politikoak, ekono-mikoak, juridikoak, militarrrak eta mediatikoak, besteak bes-te.

Beraz, argi eta garbi izan de-zagun bide egokitik goazela. Baina, era berean, ez gaitezen inola ere baretu. Hagitz dugu egiteko, bai zuek, ikasle, langi-

le, etxeko andre-gizon, nekaza-ri zein hirugarren adinean zau-detenok. Ezinbestekoa da bakoitzak bere esparruan xi-naurri lana egitea, egunez egun, horrelako helburu-egi-tasmo eder batek ematen duen poztasunarekin.

Guztion artean, lagun, seni-tarteko, auzokide, lankide eta eragileak gehien txertatu be-har ditugu asmo honetan, ho-nela soilik bermatuko baitugu, herri indarrez, geure herriaren geroa. Ondorioz, izan bitez hitz labur hauek lanerako akuilu, guztion eskuetan dagoelako ezina ekinez egitea.

Amaitzeko, adiskideok, kon-tuan izan orain garrantzi bere-zia duela oztopo guztien gaine-tik elkarren arteko batasuna. Eta ez ahantzi sekula, ihesean, erbestean, zein espetxean aur-kitzen garen euskal gizon-emakumeak xinaurritegi zaba-la osatzen dugula, euskal jen-dartearekin osagarri.

Besarkada bero bezain iraul-tzaile batez, aurrera bolie! Am-nistiaren bidean euskal preso-ak Euskal Herria! Estatus poli-tikoa orain!

HAIMAR ALTUNA IJURKO (EUSKAL PRESO POLITIKOA, FRANTZIAKO ESPETXETIK) ▶ LIZARTZA

## IBARRA ▶ HIRIGINTZA



Apaiiz-Erreka ubidea egokitzeko lanak direla-eta errepidea ibxita egongo da bi hilabetez. I. TERRADILLOS

# Leaburura joateko errepidea itxita egongo da bihartik

Apaiiz-Errekako ubidea egokitzeko lanak ari dira burutzen; obrek bi hilabete inguru iraungo dutela adierazi dute

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Laster iritsiko dira Inauteriak, eta mozorroan pentsatzen hasiak izango dira batzuk. Zertaz mozorrotzea pentsatu duzu? Zein uste duzu litzatekeela aurtengorako mozorrorik egokiena? Sartu eta eman zure iritzia! ▶

### IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udalak jakitera eman duenez, bihartik aurrera, Apaiiz-Erreka ubidea egokitze-ko lanak direla eta, Leaburura-ko errepidea itxi egingo du le-henengo zenbakiaren parean, Menendez etxean, bi hilabete inguruko iraupenarekin; hori dela-eta herritarrei sortutako eragozpenak ahalik eta gu-txien izatea espero du.

Ondorioz, Leaburura joateko bi aukera egongo dira; bata Be-

launtzatik, eta bestea autobibi-detik. Apaiiz-Errekako eta Eme-terio Arreseko herritarrek, bestalde, ohiko moduan joan-gu dira Leaburura, baina Tolo-sara joateko, aldiz, autobidea erabili beharko dute.

Emeterio Arreseko garajeen jabeek, beraien garajeetarajo-ateko, lehenengo fase honetan autobidetik joan beharko dute. Obren bigarren fasean, berriz, garajeetara joateko San Inazio auzotik barrena izango dute sarbidea.

## GIZARTEA ▶

## Erre daitekeen ala ez euskaraz adierazteko

Tabakoaren lege berriaren harira, Kontseiluarekin eta Galtzaundirekin adostuta, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak kanpai-na bat jarri du abian baita Tolosaldean ere, herrieta-ko taberna, ostatu eta el-karteetan erre daitekeen edo ez adierazten duten euskarazko kartelak bana-tzeko. Dagoeneko eskual-dean 50 karteletik gora ba-natu dituzte. Eskuratzeko, gipuzkoa2@uema.org hel-bidera jo edo 943 26 03 72 telefono zenbakira dei dai-teke.

## IBARRA ▶

## III. Garagardo Azoka egiteko bilera

III. Garagardo Azoka anto-latzeo bilerara deitu dute Ibarrako herritarrek. Dato-rren asteartean, hilaren 31n egingo dute, Kultur Etxean, 20:00etan; deialdi irekia dela gogoratu dute, eta herritarren parte-har-tzea eskatu dute.

## IBARRA ▶

## Sendi Ekintza sagardotegiaren irekiera

Otsailaren 11n zabalduko dute Sendi Ekintza sagar-dotegia. Irekieran parte hartu ahal izateko Zubiau-rran eta Sendi Ekintzan egin beharko da aurrez izen-ematea.

## TOLOSA ▶

## Elkartasunaren Eguna antolatu du Inmaculada ikastetxeak

Etzi egingo dute, eta helburua Paraguain baratze eskola bat finantzatzea izango da



Inmaculada ikastetxea. L. MONTES

## ERREDAKZIOA

Tolosako Inmaculada ikaste-txeak etzi Elkartasunaren Egu-na antolatu du. Bertako ikasle-ek prestatutako ekitaldiak izango dira, eta Paraguai-ko Chaco herrixkan baratze esko-la bat finantzatzeko dirua bil-tzea izango dute helburu.

Hala, proiektu hori diruz la-guntzeko ikasleek elkartasu-naren porra antolatuko dute, besteak beste. Goizean egingo dituzten gainerako ekitaldiei dagokionez, 11:00etan hamai-ketako solidarioa egingo dute, eta ikusgai izango da ikasleek eginiko muralen erakusketa. 12:00etan egingo dute, hain zu-zen ere, muralen aurkezpena egileek. Ondoren, 12:15 ingu-ruan, mahai ingurua egingo dute; eta, azkenik, 13:30ean, egingo dute aipaturiko elkartasunaren porraren 1. zozketa.

KOMUNIKABIDEAK ▶

# Nafarroako Gobernuak euskal komunikabideak ere aintzat har ditzan eskatu dute

Euskaraz lan egiten duten Nafarroako 21 elkartek diru laguntzen «banaketako irizpideak zehaztea» eta aurrekontuak «modu nabarmenean» igotzea eskatu dute

JAIONE ASTIBIA

Beste behin ere Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politika salatu eta agerian utzi dute. Oraingoan, egunkariak, aldizkariak, iratiak euskaraz hedatu eta argitaratzen dituzten Nafarroako 21 elkarte eta hedabidek —hauen artean daude Leitzaldeko Karrape Irratia eta *Marmari* aldizkaria— plazatu dute beren desadostasuna, 2005eko jarduerarako jaso berri dituzten diru laguntzetan «murrizketa nabarmena» izan dutela ikusi eta gero. Prentsaren aurrean egindako agerraldian, adierazi zutenaren arabera, iazkoaren (2004ko jardueran) aldean, «aldizkariak %16 gutxiago jaso dute, irratiek %28 eta telebistek %23».

Datuok Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzatik abenduaren 2an bidali

zizkieten ebazpenen bidez jakindu omen zituzten, «zubi forala delakoaren bezperan, hain zuzen ere, diru laguntzak kobratu ahal izateko aurkeztu beharreko dokumentaziorako epea hil beraren 9a izanik», nabarmendu zuten, Nafarroako Gobernuak arduradunen jokabide hau bera ere azalduz. Diru laguntza hau 2005ean garatutako egitasmoak laguntzeko izanik, «abenduan, urtea bukatukoan, jasoz», euskarazko hedabideak eta Euskara Elkar-teak «behartuta» daude, «urte osoko gastuei aurre egitera, diru laguntzarik izan den edo ez jakin gabe», ziotenez, «hainbat kasutan gastuei aurre egiteko maileguak eskatu behar izaten dituztelarik», azalduz.

Bestalde, Xaloea eta Ttipi-ttapa telebistak «egoera larria» daudela adierazi zuten; izan



Prentsa agerraldian euskal hedabideak. BIERRIK

ere, Nafarroan telebista digitalerako aurreikusita duten eremuan ez omen da-eta Nafarroako Gobernuak «zonalde euskalduna» deitzen duena sartzen. Ondorioz, euskara hutsaz lan egiten duten bi telebista hauek ez omen dute emititzeko baimenik izan. «*Kointzidentzia*» honen jakitun izan arren, hala adierazi zuten, erakunde nahiz alderdi politikoez ez omen diote, ordea, irtenbiderik eman. Euskalerria Irratiaren egoera ere oroitarazi zu-

ten, lizentziarik gabe jarraitzen duenez, diru laguntzak jasotzeko eskubidea ere ukatua daukala gogora ekarri.

Nafarroan euskarazko hedabide eta komunikabideek duten egoeraren berri eman ondian, hizkuntza baten osasuna neurtzeko tresna den soziolinguistikako oinarritzako printzipioak ekarri zituzten gogora, hots: «Hizkuntza batek bizirauteko, jendarteak hori erabili ahal izatea bermatu behar da»; bermatuta ez dagoenean, «erabilera hori sustatzeko, babesteko, saritzeko eta bermatzeko tresnak jarri behar dira»; «Hori egiten ez duenak, modu kontziente edo inkontzientean, hizkuntza horren desagertzea sustatzen eta bilatzen du, ez besterik», baieztatu zuten. Horrela, Nafarroako Gobernuak ezarri duen hizkuntza politika «euskararen eta euskaldunen

osasunerako, biriketako minbizia duenarentzat tabakoa bezala» dela parekatu zuten, diru laguntzak murriztuz, eragilean egoera ekonomiko eta laborala «itogarria» bihurtu dutela salatuz.

Horrela, eskaera batzuk egin zizkieten Nafarroako Gobernuari, «euskararen erabilera sustatuz, euskarazko hedabideek eta Euskara Elkar-teak Nafarroako gizarteari egiten dioten zerbitzua aitortzeko eta babesteko» eskaria egin zuten aurrean, eta gero diru laguntzak banatzeko garaian «irizpide zehatzak eta neurgarriak erabiltzea» eta, horrekin batera, «hauek ebazteko eta banatzeko datak urte hasierara aurreratzea» eta «argibideak eta erraztasunak ematea», espedienteak publikoak diren alde-tik, eskatzen den dokumentazioa aztertzeke; Euskalerria Irratia eta Xaloea eta Ttipi-ttapa telebisten lizentzien afera «behin betiko konpontzea» eskatuz batera, noski, aurrekontuetan euskararen erabilera sustatzeko diru saila «modu nabarmenean» igotzea eskatu zuten, beste behin. «Euskaldunekin errespetuz jokatu» eta informazioa «euskaraz bidaltzea» ere exijitu zuten. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzari «egoera aztertu eta irtenbideak elkarrekin aurkitzeko» go-bita egin zioten, haiek «beti prest» daudelarik.

LEITZA ▶ IHOTEK

## Eguneko protagonista umeak izan dira lhoteen azken egunean

Antzerkia, tailerrak, kalejira... festan bete-bete ibili dira; helduak, gauaren zain

J. ASTIBIA

Eta azken eguna izanik ere, ez zen txarrena izan atzokoa ere Leitzako lhoteetan. Eguneko festan, nabarmentzekoa izan zen umeen festa giroa; heldu eta gazteak gauerako prestatu ziren.

Horrela, atzokoan ere eguna eskera joanez hasi zuen atxotutako talde batek. Txistulariak lagun zituztela, Erasote auzora joan ziren eskera. Hango base-rietan sabelak bete bidenabar, jokoa eta bertako etxekoekin egonaldiak eginda, goiz itzuli ziren herrira; bezperakoek gau-gauetan egin zuten herrian sarrera. Eta, Aurreran

bazkide eta eskelariak egin zuten bazkarira joan ziren, noski.

Goizean, umeek ere zer ikusia izan zuten, *Ingurumenua* antzerki-lana. Bertan, Konxome La Supe eta Fabritzioekin sukaldaritzaz ez ezik, ingurumenaren zaintzaz ere ikasi zuten.

Eta ikastetik, ikustera eta parte hartzera, arratsaldean Incansables txarangarekin kalejira egin zuten herriko atarietan barrena, umeek, gurasoek eta nahi izan zuten guztiak. Kolorez eta dantzatzuz egin zioten aurre, ordu horretan jada nahiko hotz zegoen eguraldiari. Hori bai, kalejira aurretik, makilaia tailerrean aurpegiak po-



Atzo arratsaldean kalejirarako prestatzen aritu ziren makilaia tailerrean bertara joan ziren umeak. J. ASTIBIA

lit-polit koloreztatzeko aukera izan zuten. Eta, ondoren, txokolate beroak ere esker ona izan zuten plazan bildu zirenen aldetik.

Iluntzean bertan hasi eta gauean berriz ere, Gau-Bela taldea aritzekoa zen Karrapean musika jotzen. Aurten gustura daude hauek ere, dantzari koi-

drila ederrak inguratzen omen dira-eta bertara, gelditu gabe, dantzan jo ta su ariz.

Gauean, bestela ere izanzen giroa, arratsaldean nabaritzen baitzen gazteen artean eta jende helduaren artean ere gauerako hitzorduak eginez eta jantzi beharreko trapuei azken ukituak emanez zebiltzela.

### iragarki laburrak ▶

#### LANA

**Gidaria.** Gidaria behar da ADR-arekin, Espainian eta Hego Euskal Herrian zeharreko garraiorako. Lan finkorako aukera handiak. 607 58 41 39.

# HITZA, zorion agurren **tartea**

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
 Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
 Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!